

ALERTA GORRIA - #EKITALDIAKEGITENDITUGU @HACEMOSEVENTOS #WEMAKEEVENTS

**SEKTORE OSOA, BATASUN BAKARRA
URGENTZIAZKO NEURRIAK HARTZEKO 17S / I17 MANIFESTUA**

Ikuskizun eta Ekitaldien sektorea osatzen duten profesionalek eta enpresek alor ekonomikoan eragin ekonomiko zuzen nabarmena daukate: Espainiako Barne Produktu Gordinaren %3,8 eta 700.000 lanpostu sortzen ditu.

Oso anitza eta banatuta dagoen sektorea da, eta bere ezaugarri nagusiak dira transbersala dela eta beste sektoreekiko (Kultura eta Kirola, Industria eta Turismoa) menpekotasuna duela. Horren ondorioz, ikuskizun eta Ekitaldien sektoreak betidanik bizi ditu egitura-ahuldura eta segurtasun juridiko eza. Eta orain, bizi dugun egoera berri honekin, hori guztia are eta gehiago areagotu da. Horregatik ezinbestekoa eta premiazkoa da sortzea erreglamendu bateratu eta espezifiko bat erantzun egokia emango diena sektoreak bizi dituen egoera, baldintza eta zehaztasunei, besteak beste askotan sasoika edo jarraikortasun gabe lan egin behar izatea.

‘I17 Mobilizazioak komunikatua’-n azaldutakoaren arabera, sektorea muturreko egoeran dago, eta egoerari buelta ematen ez bazaio, milaka familia miserian geldituko dira lanpostuei eutsi ezinda, eta enpresa zein profesional ugarik ezingo dute biziraun.

Sektorearen zaurgarritasunari buruzko errekonozimendurik ez dago, ezta Gobernuaren aldetik laguntza zehatzik. Horregatik guztiagatik ezinbestekoa da ikuskizun eta ekitaldien sektoreak bizi duen egoera latzari ikusgarritasuna ematea.

Sektoreak mundu osoan bizi duen muturreko egoerak martxan jarri ditu hainbat eta hainbat ekimen arlo honek bizi duen egoerari behar duen ikusgarritasuna emateko. Hala, gurean erabaki dugu bat egitea Europar eta mundu osoan zabaldutako #ekitaldiakigitenditugu #alertagorria #wemakeevents #redalert #hacemoseventos #alertaroja ekimenarekin.

Profesional ugari batu dira, aurretik inoiz egin ez duten bezala, irailaren 17an Estatuko hiri desberdinetan lelo eta helburu bera izango duen mobilizazio erraldoi bat egiteko, baita Euskal Herrian ere, jakina.

Espainiako Gobernuari eta Lan, Ogasun, Gai ekonomikoak, Kultura eta Kirola, eta Industria sailei eskatzen diegu datozen asteetan sektore honen biziraupena bermatzeko urgentziazko neurriak hartzeko, eta berorren beharrak aztertuko dituen mahai sektoriala berehala sortzeko, kontuan hartuta askotan sasoika eta modu ez jarraituan lana egin behar izaten duela. Hori horrela izanik, eskatzen zaie lehentasuna ematea Estatu mailako sektoreko hitzarmen kolektiboa sortzeko negoziazio prozesua martxan jartzeari.

Sektorearen erreskatea gauzatzeko urgentziazko neurriak hauek dira:

1. Ikuskizun eta Ekitaldien sektorea Covid19 pandemiak gehien kaltetutako sektoreen artean onartzea. Izan ere, alarma egoeraren ezarpena gauzatu aurretik sektore honen aktibitate guztiak geldiaraztera derrigortu zuten. Hala, erakunde eta administrazio publikoek, turismoaren sektorearekin egin duten bezala, haxe nabarmen kaltetutako eta lehentasunezko sektoretzat hartu beharko lukete.
2. Erakunde publikoen ekitaldien eta kultura agenden berraktibatzea, batez ere tokiko administrazioena, beti ere osasun segurtasun protokolo guztiak beteta.

Langile autonomoentzat:

3. Aktibitatea eten izanagatik haien lana gelditu dutenei jaso beharreko ezohiko prestazioaren luzapena aforoen %100 berreskuratu artean, RETAren kuotaren %100eko zerga-salbuespena, eta sarbide aukera izatea irabaziak aurreko urteko hiruhilekoa baino %30 txikiagoak izateko derrigortasuna kenduta. Kotizazioa mailakatua izan dadila, lan egindako egunen arabera.
4. Neurri legislatibo espezifikoak sortzea pandemia hasi zenean haien lanak sasoika eta modu ez jarraituan egin behar izanagatik edo gaixo/bajan egoteagatik Gizarte Segurantzaren alta eginda ez zeudenentzat. Aktibitatea eten behar izanagatik prestazioetara sarbidea izatea aforoen %100 berreskuratu artean.
5. RETAn 2 urte baino gutxiago alta eginda dauden langile autonomoei ezohiko aktibitate etetearen onarpena egitea. Aktibitatea eten behar izanagatik prestazioetara sarbidea izatea aforoen %100 berreskuratu artean.
6. Langile autonomo eta sektoreko profesionalei zerga-tasaren txikitzea eta IRPFaren kuotan kenkariak ezartzea aktibitatera batzen direnetik, kontuan hartuta askotan haien lanak sasoika eta modu ez jarraituan egiten dituztela.

Besteren kontura aritzen diren langileentzat:

7. Aktibitatea etenda dagoen bitartean eta aforoen %100 berreskuratu artean, langileek ez dute prestazio edo laguntzak jasotzeko eskubidea mugatuta izango, eta kontuan hartuko da neurri honek 2020ko martxoaren 14tik hasita duen atzeraeginezko izaera.
8. Aktibitate hauen izaera ez jarraitua onartzea, eta kotizazio erregimenaren eta babes sozialaren inguruko neurri legislatiboek ezartzea; ahalbideratuz langabezi prestazioak automatikoki jasotzea, gutxieneko ordu batzuk bete izanez gero, lan kontratuak indarrean dauden arteko epeetan.

Enpresentzat:

9. Ezinbesteko arrazoiengatik ezarritako ERTeen berreskuratzea eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen %100 salbuetsita izatea aforoen %100ean lan egitea posible izan arte; eta Oinarri Arautzailearen %70eko ERTearekin kaltetutako langileriak prestazio osoari eustea.
10. Aktibitatea berreskuratzen joan ahala, enplegu-erregulazioko gailuen egokitzapen zehatza lanaren sasoiko eta ez jarraituaren izaerara. Ezinbesteko arrazoi partzialaren erregulazio berria ez da bateragarria sektore honen lan dinamikekin: langileak egun gutxietarako berrartu behar izaten dituzte, eta kasu horietan ere derrigortuta daude berrartutako langileengatik zein ERTean jarraitzen dutenengatik kotizatzerara. Ondorioz, sektoreko enpresek galerak izaten dituzte.
11. 2020ko eta 2021eko jardunetako Sozietate-zergaren zerga-tasa txikitzea, eta edozein kopurutako zerga-zorren bermerik gabeko salbuespeneko atzeratzeak 18 hilabetetara interesik gabe. Sasoi parekoan Jarduera Ekonomikoen, aktibitatearekin lotutako Ondasun Higiezinak, tokiko zergen zein enpresa-ekintzekin lotutako zerga eta ordainketek salbuestea.

Sektorearentzat:

12. Automo eta enpresentzat dirulaguntza zuzenak ezartzea, beti ere aurreko urtearekin alderatuta irabaziak %50 gutxitu dituztela egiaztatuz gero, aurreko urteetan egindako inbertsio edo zorpenarekin lotuta egon edo ez daitezkeenak.
13. Kultura Industria, Ikuskizun eta Turismo kongresu, zein Batzarrak, Pizgarriak eta Ekitaldiak (MICE) rekin lotutako sektoreei BEZ murriztua ezartzea.
14. ICO kredituetan luzamendua aktibitatea berpiztu arte, hau da, aforoak %100 berreskuratzerakoan.